



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismo Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo



Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak 1,7 milioi € jarriko ditu gazteen enplegua sustatzeko helburuarekin

Donostia UP! Planaren esparruan, Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak abian jarri du, Kutxa Zeharo- Gureak-ekin eta Nazaret Fundazioarekin batera: Jabe Izan izeneko programa berria. Programa 16 eta 29 urte arteko gazteentzat da, lan eta ikasketarik gabekoentzat eta lan-merkatuan sartzeko hezkuntza edo prestakuntza prozesuetan aurkitzen ez direnentzat. Taldeak aukera izango du prestakuntza-ikastaro ezberdinetan parte hartzeko honako arlo hauetan: turismoa, merkataritza eta ostalaritza. Aldi berean, prestakuntzan parte hartutako gazteak lan-merkatuan sartzea sustatzeko helburuarekin, enpresei gazteak kontratatze laguntzak eskainiko zaizkie; hau da, kontratatutako gazte bakoitzeko 6.000 €.

Programa hiru urtekoa izango da, eta lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez sortu da. Lan-munduan sartzeko zailtasunak gainditze aldera, profil ezberdineko gazteentzat aukerak sortu nahi dira, batik bat prestakuntza gutxiago eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun gehiago dituztenentzat. **Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismo zinegotzia den Ernesto Gascok** ondorengoa adierazi zuen: “programa honen bitartez, lan-merkatuan sartzeko zailtasun ugari izan dituzten gazteen enplegarritasuna hobetzen ahaleginduko gara”; “saiatu gara eskaintzen diren **ikastaroak eta laguntzak sektore horiek dituzten lan-premiekin ezkontzen**”.

2016ko prestakuntza-eskaintza honako hau da:

1 - Ikasketarik gabeko eta lan-esperientziadun edo esperientziarik gabeko gazteek ikastaro hauek egiteko aukera izango dute:

Merkataritzako teknikaria/laguntzailea.

2 - Ikasketak dituzten gazteek eta lan-esperientziadunek edo esperientziarik gabekoek ikastaro hauek egiteko aukera izango dute:

Barrako eta terrazako laguntzailea.

Sukaldari-laguntzailea.

Pisuko zerbitzaria.

Establezimendu turistikoetako harreragilea.

Enplegurako komunikazio-erremintak: ofimatika, ingelesa eta sare sozialak.

Jarduera turistikoetako teknikaria.

Community Manager eta Marketing digitala.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

3 - Ikasketak dituzten gazteek eta lan-esperientziadunek ikastaro hauek egiteko aukera izango dute:

Merkaturatzeko teknikaria (ekintzailtzako prestakuntza barne).
Proiektuen kudeatzailea (ekintzailtzako prestakuntza barne).

Ikastaroak ekainean hasiko dira, eta ostalaritzako, merkataritzako eta turismoko sektoreen lan-premiak kontuan hartuta diseinatu dira. Halaber, **kontrataziorako laguntzak eskainiko dira; hots, 6.000 € laguntza** izango da gutxienez sei hilabeteko eta lanaldi osoko kontratuetarako. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, lanaldiak gutxienez %75ekoa izan beharko du.

Programa, Eusko Jaurlaritzak onartuta, **Europako Gizarte Funtsak batera finantzatzen du 2014-2020 Gazteen Enpleguko Programa Eragilearen** esparruan, ondorengo proiekturako: "Gazteen trebetasun eta gaitasun profesionalak hobetzeko eta Donostia Jabe izan proiektua"; bertan, honako erakunde hauek hartzen dute parte: Donostiako Sustapena, Gureak Inklusio Fundazioa-Kutxa Zeharo eta Nazaret Fundazioa. Horietako erakunderen batekin harremanetan jartzen diren gazteek gehien komeni zaien ibilbidea hautatzeko aholkularitza jasoko dute. Edozein kontsulta egin nahi izanez gero, deitu 943 48 28 00 telefono-zenbakira.

Hona hemen informazio-puntuak:

Donostiako Sustapena

Kamino kalea 2, 20.003 Donostia.
Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:00

Gureak Inklusio Fundazioa- Kutxa Zeharo

Errenteria kalea, 10 – 20.013 DONOSTIA (Gros)
Herritarrak artatzeko ordutegia:
Urritik maiatzera: 9:00-13:30 eta 15:00-16:30.
Ekainetik irailera: 9:00-14:00.

Nazaret Fundazioa

Aldakoenea, 36 - 20.012 Donostia
Herritarrak artatzeko ordutegia:
Maiatzetik uztailaren 15era: 9:00-19:00. Irailaren 1etik aurrera: 9:00-19:00.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus